

ESANAK

JESUS MARI ZAMORA
(Realeko bigarren entrenatzailea)

«Egun futbolean jokatzeko orduan baino zailagoa da. Tarte gutxiago dago eta erritmoa biziagoa da»

INAXIO KORTABARRIA
(Realeko jokalaria ohia)

«Ezin da neurtu eta ezingo nuke erantzun. Gure garaian izan ginen, orain beste batzuk dira»

ALBERTO ORMAETXEA
(Realeko entrenatzaile ohia)

«Denek dakite partitura. Hori da gakoa egungo Realean»



EGUNKARIA / ARGAZKI PRESS

BI IRUDI, BI ARO. Ezkerreko argazkian, Realeko jokalaria, Gijonen Zamorak sartutako gola ospatzen. Besteak beste, Periko Alonso, Lopez Ufarte eta Zamora bera ageri dira. Eskuinekoan, aldiz, egungo Realeko jokalaria, aurten sartutako gol bat ospatzen.

Egungoa, txapelduna baino hobea ote?

BI TALDE, BI GARAI. Futbola aldatu dela eta 80ko hamarkada hasierako Real eta egungoa alderatzea ezinezkoa dela iritzi diote hainbat jokalaria ohik. Sailkapeneko egoerak du antzekotasuna

Jon Balentziaga | **DONOSTIA**
Ekaitz Agirre | **DONOSTIA**

Aurreko asteburuan Athleticen aurka denboraldiko lehen neurketa galdu arren, oraindik lau puntuko aldeaz eusten dio Realak lidergoari. Lehen porrotak zertxobait baretu ditu realzaleak, baina talde txuri-urdinaren inguruan Espanyol garaitzen badu, berriz ere lehengora itzuliko dira zale baikorrenak, txapeldun izatearekin amestera alegia.

Egungo Real 80ko hamarkada hasieran Espainiako Liga bitan irabazi zuen taldearekin alderatzea zaila dela diote EGUNKARIAK Realaren garai gozoenak aztertzei aukeratu dituen protagonistek.

Iritzi horretakoa da Jesus Mari Zamora. Orduan bezala, orain ere talde barruan lanean ari da donostiarra. Jokalaria orduan, entrenatzailea orain, futbola asko aldatu dela iritzi dio: «Egun futbolean jokatzeko garai hartan baino zailagoa da. Tarte

gutxiago dago orain, erritmoa biziagoa da eta pentsatzeko tarte askoz murriztagoa da. Bestalde, orain, teknika hobeko jokalaria ikusten dira. Horregatik guztiagatik, orduko eta oraingo taldea alderatzea ezinezkoa dela deritzot. Hura talde ona izan zen, eta hau talde onaz izateko lehen urratsak egiten ari da».

Realeko bigarren entrenatzaileak Athleticen aurka jokatu aurretik egin dizkio adierazpenok EGUNKARIAI. Ez du inongo

presiorik nahi; baina, lorpena zein izan litekeen aipatu gabe, amets egiterik badagoela uste du. «Sentsazio zein emaitza aldetik, orduko egoerarekin antzekotasun batzuk ikusten ditut, baina Liga Txapelketa azkeneko partidetan erabaki ohi da, eta orduan ikusi behar da gu non gauden».

Orduko taldeko kapitaina zen Inaxio Kortabarría. Hark ere ez du uste orduko eta egungo Real konpara daitezkeenik. «Ezin da neurtu eta ez nuke baietz edo ezetz erantzungo. Gure garaian izan ginen, orain beste batzuk dira», iritzi dio Kortabarriak.

Garaiak garai, badira ezaugarri komunak

Bi taldeak ezberdinak dira, garaiak ere bai, baina 80ko hamarkada hasierako Real eta gaur egungoak badituzte ezaugarri komunak. Atzealdeko sendotasunean zuen oinarria talde txapeldunak, atezain postutik hasita —Realaren atean inoiz ez du

eman beste inork Arkonadaren maila—. Egungo Realak ere, Liga hasieran gol asko jaso arren, aurkitu du sendotasuna, Jauregi-Schurrer bikotearekin —San Mamesen hiru gol jaso arren, maila onean ari da Real defentsan—. Eta, iazko zalanztak gaintuta, Westerveldek konfiantza bereganatu eta konfiantza hori taldeari helaraztea lortu du. Aurrealdean ere golegile peto bi: Satrustegi eta Kovacevic. Jokalaria ezberdinak, baina biak ala biak areako gizonak, bederlatziak.


Alberto Ormaetxeak zuzendu zuen talde txapelduna, eta gaur egungo Realaren ibiliaren zergatia argi dauka: «Realaren gakoa da denek partitura dakitela». Hain justu, Arkonadak euren garaiko taldeaz esandakoaren antzekoa: «Taldea memoriaz jokatzeko zuen; bakoitzak bazekien zein zen bere egitekoa». Bada zerbait.



HAUR HEZKUNTZA: 2 urtetik 6ra



LEHEN HEZKUNTZA: 6 urtetik 12ra



D.B.H.: 12 urtetik 16ra



BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA: 16 urtetik gora

Herritik Sortua Herrian Sustraitua


ORIOKO HERRI IKASTOLA · Abeslari kalea, 8 · 20810 ORIO

Telefona: 943 834 704 / 943 894 360 · Faxa: 943 130 938 · e-maila: orio@ikastola.net

BULEGOKO ORDUTEGIA: 10:00 - 13:00 15:30 - 19:00

Matrikula epea: Otsailaren 3tik 14ra

2-3, 6 eta 12 urtekoen izen emate epea zabalik



Orriko Herri Ikastola



PARTAIDE



Ikastolen Elkartea

